



ENPRESARIEN KONFIANTZA


Enpresen konfiantza sendoagoa da euskal enpresen artean

INEk enpresen konfiantzari buruzko inkestaren emaitzak argitaratu ditu, eta, 2026ko bigarren hiruhilekoan, euskal enpresen datuek tonu positiboa izan dute, nahiz eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, murriztu egin den. Konfiantza indize sintetikoa 135,2 puntukoa izan zen, lehen hiruhilekoan baino 2,5 puntu txikiagoa, baina oraindik ere maila altuetan eta estatuko batez bestekoaren gaineretik dago.


Amaitu berri den hiruhilekoaren egoeraren balorazioak indarra galdu zuen. Saldoa 6,5 puntura jaitsi zen 12,9tik, eta horrek erakusten du jardueraren azken aldiko bilakaeraren pertzepzioa oraindik positiboa dela, baina ez hain hedatua. Datorren hiruhilekorako aurreikuspenak argi eta garbi positiboan mantendu ziren, 9,2 puntuko saldoarekin eta 10,5ekoarekin, ziurgabetasun handiko testuinguru batean.

ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI


2. HIRUHILEKOA
135,2



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA


2. HIRUHILEKOA
133,9




Neurritasun profil hori Estatu osoan ere ikusi zen, baina intentsitate handiagoarekin. Enpresa konfiantzaren indize harmonizatua 133,9 puntutan kokatu zen, azken jardueraren pertzepzioaren dinamismo txikiagoko ingurune batean. Izan ere, enpresen konfiantzak behera egin zuen bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean, 15 autonomia erkidegotan, eta bitan bakarrik egin zuen gora.

Egokitzapena batez ere amaitutako hiruhilekoaren balorazioan kontzentratu zen, 1,3raino jaitsi baitzen saldoa, eta euskal enpresen kasuan baino narriadura nabarmenagoa izan zuen. Aldiz, sartzen den hiruhilekorako itxaropenak positiboan mantendu ziren, 4,8ko saldoarekin, establezimendu baikorrak apur bat nagusituz ezko- rren aldean.

AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.